

DIRU SARRERAK

Mcbaxerri enpresak aktiboen salmentaren bitartez lortzen ditu irabaziak, alegia, gure produktuak saltzerakoan lortzen dugun dirua gure mozkina bilakatzen da.

Fast food kate bat garenez gure produktuak erabilera bakarrekoak dira, janaria eta edaria dira eta. Bezeroek hauek eskuratzen dituzte gure jatetxean eta hauen ordainketa kreditu txartelaren bitartez edo diru fisikoaren bitartez egin daiteke.

Ordainketarako beste metodo modernoak, hau da, mobilaren bitarteko ordainketa eskuragarri dago baita ere.


Prezioak finakoak dira eta produktu bakoitzak bere ezaugarrien araberako prezioa dauka ezarrita, gure menuaren janariaren prezioak 2€etik 13€etara juten dira eta produktu gehienak 7€-8€ inguru kostatzen dute. Edariak ordea 0€ etatik (ura doanik eskaintzen dugu) 3,5€ etara doazte.

Gure bezeroak kalitatezko elikagaiengatik eta lan baldintza duinaengatik ordaintzen dute. Gure produktuak erostean tokian-tokiko ekonomia sustatzen dute, izan ere, gure produktuak lantzeko erabiltzen ditugun elikagaiak gertuko baserrietatik datozte, produktuen freskotasuna eta naturaltasuna bermatuz.

Gainera hain zapaldua dagoen nekazarien lana sustatzen dugu baino egoera duina eta atsegina bermatuz. Bertako produktuak eskuratzean garraioak isurtzen dituen CO2 emisioak asko murrizten ditugu, gutxi balitz

, ez ditugu ia hondakinik sortzen eta sortzen ditugun hondakin gehienak birziklatzen ditugu ingurunean uzten dugun aztarna ahalik eta gehien murrizteko. Gure hondakin organikoak gure larre eta baratzen ongarritzat erabiliko ditugu. Konposta ere egingo dugu ongarri erabiltzeko

CO2 isurketak



Laburbilduz, gure enpresak banakoak dituen bezero nagusitzat ordainketa erraz gauzatzen da kreditu txartelekin edo diru fisikoarekin. Diru honekin eskaintzen dugun janaria erosten dute eta horrek eragin positiboak ditu gure zuzeneko ingurenean eta beste hainbat arloetan ere bai. Dena den, ekoizten ditugun produktuak nekazari-aberastasuna eskaintzen diote gure zonaldeari. Hornitzen gaituzten hornitzaileak bertako baserritarrak dira, beraz ondoko enpresa txikiak sustatzen ditugu sare nekazari-industrial bat sortuz, eta horrela tokiko ekonomia sustatuz eta bultzatuz zerbitzu bat eskaintzen dugun bitartean.

